

JEAN LASSALLEK BURU EGIN DIO EMMANUEL MACRONEN UHOLDEARI



Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

Macron uholdea sentitu da Ipar Euskal Herrian ere. Frantziako Legebiltzarrean egonen diren hiru diputatuetarik bi presidentearen Errepublika Martxan mugimendukoak dira: Vincent Bru eta Florence Lasserre-David. Hirugarrena Jean Lassalle da, 2002 urteaz geroz Legebiltzarrean dagoen biarnesa. Bozketen bigarren itzulian izandako abstentzio handia ere azpimarratzekoa da. Bigarren itzulian ez egon arren, bozketa horietan egin emaitzaz "oso pozik" agertu da EH Bai.

Macron uholdeak ekarritako bi diputatu berri, hots, Vincent Bru eta Florence Lasserre-David eta azken 15 urteetan diputatu dagoen Jean Lassalle. Horra hor zein izanen diren Ipar Euskal Herriko diputatuak Frantziako Legebiltzarrean. Emmanuel Macron presidente berriak osatu Errepublika Martxan mugimenduak (EM) lehen itzulian jaso sostengua ikusirik eta bigarren itzulirako aurreikusitako Macron uholdea kontutan harturik, ez da sorpresa handirik gertatu. Laugarren bozka barrutiak sortzen zuen jakin-min eta zalantza gehien. Hain zuzen, buru-burukoan zirelako Macron fenomenoari esker garaile ateratako Loic Corrégé ezezaguna (botoen %25,41 lehen itzulian) eta aspaldian kargua daukan Lassalle (botoen %17,71).

Abstentzio handia ere nabarmentzekoa da: %46,63 laugarren hautes-barrutian, %55,43 bosgarrenean eta %56,88 seigarrenean. Frantzian izandako Alderdi Sozialistaren porrota gertatu da Ipar Euskal Herrian ere: Sylviane Alaux lehen itzulian berean gelditu zen lehiatik kanpo eta Collette Capdevielle aldiz bigarrean. Abertzalerik ez da egon bigarren itzulian. Iragan igandean hirugarren indar ateratako EH Bai koalizioak ez zuen boto konsignarik eman. EAJK haatik Bru eta Capdeviellen alde egiteko deia luzatu zuen.

Jean Lassalle: usu falta, baina beti hor

Jakina da Legebiltzarrean duen aulkia usu hutsik gelditzen dela. Adibidez, Le-

gebiltzarreko finantza komisioko partaide izan arren, batzordearen bileren %85etara ez da agertu. Legebiltzarrean egindako hitz-hartzei edota emendakinei doakieenez, gutxien egiten dituzten artean sailkatzen da. Baina berdin dio, Zuberora, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko zatitxo bat (baita Biarnoren zati bat) biltzen dituen barrutiko hautesleek behin eta berriaz adierazten diote sostengua. 2002az geroztik du diputatu aulkia. "Artzain bat Eliseoan" izenburuarekin publikaturiko azken liburua duela frogatzen, baserri munduaren ordezkariatza dauka bere burua. Ezin uka hori gogoko dutela bozkatzailerik eta horrek duela laguntzen garaipenera. Kontutan harturik ikastolei buruz berriki egin oharra (armen kudeaketa irakasteko gune direla) edota bake prozesuaren aldarria entzunazten ez ibili izana, suposatuta daiteke ez duela abertzaleen botorik jaso.

Florence Lasserre-David: Bayrouren hurbilekoa

Botoen %57,03 eginek, aulkia hartu dio Capdevielleri. Alderdi zentristan militante egonik, urteak daramatza hautetsi gisa 36 urteko diputatu gazteak. Angeluko auzapez-ordea eta Pirinio Atlantikoetako departamendu mailako kontseilaria ere da. François Bayrou Justizia ministroaren hurbilekoa izanki, EM-en hautagai izendatu izanak ez zuen sorpresa eragin. Ez da ordea mugimenduak irudikatu nahi duen aldaketa eta berritasunaren etsenplu.

Aldarrikapen abertzale edota euskaltzaleei doakieenez, ez da sostengua adierazi ohi duten hautetsien artean kokatzen. Tartean aipatu daiteke Bagoaz kolektiboak hautagaiei bidalitako galderei erantzun ez izana. Bake prozesuaren edota preso politikoen eskubideen errespetuaren eskakizuna Legebiltzarrean eramateko engeia mendua hartzen ote zuen galdetzen zion kolektiboak.

Vincent Bru: batean eskuinean, bestean ezkerrean

Seigarren barrutiko botoen %62,51 bildurik, garaipen argia lortu du Bru. Politikaren munduan ezaguna da: Kanboko auzapeza eta departamendu mailako kontseilari



Lassalle, Lasserre-David eta Bru.

da. Diputatu kargua osoki betetzeko, beste postuetan dimisioa emanen duela jakinaz du. Iragana eskuinean du, baina Legebiltzarretarako bere burua zentroan kokatu du, Macronen mugimenduaren barne den Modem alderdi zentristaren etiketarekin aurkeztuz. Legebiltzarretarako aitzineko hauteskundeetan demagun, Michele Alliot-Marieren (UMP) ordezkari aurkeztu zen. Herriko Etxerako bozketetan ere eskuindar gisa presentatu zen. EMen hautagai aukeratu izanak iskanbila sortu zuen. Batez ere, gay eta lesbianen ezkontzaren aurkako manifestua izenpetu zuelako. Hor ere kolpe jarreraz aldatu du, izenpedura kentzea galdetuz. Beste bi diputatuek ez bezala, bake prozesuaren gaia eta preso eskubideen errespetuaren eskaera Legebiltzarrean eramateko konpromisoa hartu du. ■